

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Derion erroldatuta dauden langabeziak kontratatzen dituzten enpresei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak.**

Udalbatzak 2017ko irailaren 26an egindako bilkuran, honako erabakia hartu zuen, besteak beste: Derion erroldatuta dauden langabeziak kontratatzen dituzten enpresei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak.

Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.2 artikulua xedatzen duenarekin bat etorriz, arestian aipatu espedientea jendaurrean agerrarazi da. Interesatuak, beraz, 30 eguneko epea izango dute egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko.

Goian aipatutako epean iradokizun edota erreklamaziorik aurkeztu ezean, hasierako erabakia behin betiko dela ulertuko da.

Derion, 2017ko irailaren 28an. — Alkatea, Esther Apraiz

DERIOKO UDALERRIKO LANGABETUAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK**1. Helburua**

Laguntza hauen helburua da merkatu arrunteko enpresei diru-laguntzak ematea Derion erroldatuta dauden eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dauden langabetuak kontratatzeko.

2. Erakunde onuradunen betekizunak

Kontratatzeko laguntza hauen onuradunak izan daitezke enpresa, denda eta profesional guztiak, haien forma juridikoa edozein izanik ere, baita irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak edo fundazioak ere.

Honako hauek ezin izango dituzte jaso diru-laguntzak:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horiekin lotutako edo horien menpeko erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak beste enpresa bati aldi baterako lagatzeko kontratatu nahi badituzte.

Kontratatzeko laguntzak lortu nahi dituzten erakundeek legeak ezarritako baldintzak eta honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

1. Legalki eratuta egotea eta egoitza soziala edo lantokia Bizkaian edukitzea, ahal dela Derion.

2. Kontratazio berriak egitea, baldintza hauen arabera: Lanposturako hautagaien eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda argitaratuko da. Behin behineko zerrenda argitaratzen denetik 3 lanegunera arte hautagaiak zezentzeko eskaerak edo erreklamazioak aurkez ditzakete behin behineko onartuen eta baztertuen zerrendaren kontra. Epe hori agortu ondoren behin betiko zerrenda argitaratuko da horrela badagokio.

Azkenean, hautatze prozedurari dagokion onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Zerrenda guztiak, behin-behinekoak eta/edo betikoak argitaratuko dira derioko Udalaren webgunean (web www.deriooudala.net) eta Egaz Txorierriko iragarki oholean.



3. Ez egotea zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, eta ez egotea horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorritik.

4. Erakunde bakoitzak gehienez ere enpresak parte hartzeko 2 eskaera aurkez ditzake oinarri hauetan zehaztutako kontratatzeko laguntzetarako.

Onuradunek oinarri hauek arautzen duten laguntza-programan parte hartzen duten aldi osoan bete behar dituzte baldintza horiek.

3. Kontratatzeko baldintzak

3.1. Kontratazioen ezaugarriak

Erakunde kontratatzaileak agiri bidez egiaztatu behar ditu honako baldintza hauek, diru-laguntza justifikatzeko:

- Kontratazioak enplegu garbia sortuko du pertsona kontratatuak sartu aurreko 3 hilabeteetan enpresan egon den batez besteko plantilla osoaren gainean.
- Kontratuak gutxienez 3 hilabetekoak izango dira. Edozein kontratu-motaren bidez formalizatu ahal izango dira, prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua salbu.
- Kontratuak lanaldiaren %100ekoak izango dira gutxienez.
- Laguntzaren azken zenbatekoak ezin du gainditu kontratatuaren soldata-kostuen %75, kontratuaren amaierako kalte-ordainak eta Gizarte Segurantzaren kostuak barne.
- Oinarri hauek Txorierri.eu webgunean argitaratzen diren unetik aurrera abiatu ahal izango dira kontratuak, 2017ko abenduaren 1era arte.
- Kontratuak enpresak laguntzetan parte hartzeko eskaera entregatu ondoren egin beharko dira.

3.2. Kontraturiko pertsonen baldintzak.

Kontraturiko pertsonen honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Langabezian egotea eta Derion bizitzea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.

Derioko udalerrian egoiliar bezalakotzat hartuko da, errolda ziurtagiriaren bidez egiaztatzen duena Derioko udalerrian erroldatuta dagoela etengabe 2017ko urtarilaren 1 baino lehenago.

Lan eskatzaille dela ulertuko da Lanbiden Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa dagoena, Alta eta Eskaeraren Berritze (LEABD) agiriaren hori frogatzen duena, enpleu eskatzaille gisa alta izatea, dagokion Eskaera instantzia aurkezten den eguneko antzintasunarekin gutxienez. Kontratazioa hasi baino lehenago Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean edo Langile Autonomoen Erregimen Berezia alta eman gabe egotea.

- Ez zaie diru-laguntzarik emango enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-organoetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoak) duten ezkontideen, oinordekoen eta gainerako senideen kontratazioei.

4. Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntza hau ordaintzeko gutxienezko aurrekontu-kreditua 10.000,00 eurokoa izango da. Diru-laguntza bakoitza 2.000,00 eurokoa izango da gehienez kontraturiko pertsona bakoitzeko.

5. Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan jasotzen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek kontzeptu eta helburu berberetatik ematen dituzten bestelako diru-laguntza edo laguntzekin. Nolanahi ere, diru-iturri des-



berdinetatik lortutako laguntza edo baliabideen zenbateko osoak ezingo du inola ere soldaten kostu gordina gainditu. Soldaten kostu gordina gainditzen bada, diruz lagundu beharreko zenbatekoa gutxituko da.

6. «Enpresak parte hartzeko eskaera» aurkeztea

«Enpresak parte hartzeko eskaera» eta eskatzen diren gainerako dokumentuak oinarri hauek Txorierrri.eu webgunean argitaratzen diren egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2017ko azaroaren 1era arte, betiere laguntza jaso dezakeen kontratazioa egin aurretik.

a) *Lekua eta ordua*

«Enpresak parte hartzeko eskaera» eta dagokion dokumentazioa bi modalitateen bidez aurkeztuko dira:

- egaz@txorierrri.eu helbide elektronikoaren bidez.
- Egaz Txorierrin (helbidea: Txorierrri etorbidea, 46, 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.

«Enpresak parte hartzeko eskaera» ez da behar bezala aurkeztutzat joko egon daitezkeen hutsak zuzendu arte.

b) *Aurkeztu beharreko dokumentuak*

Eskaera egingo da «Enpresak parte hartzeko eskaera» erabiliz. Hori dago baldintzen oinarri honen I. eranskinean eta , www.txorierrri.eu webgunean.

Horrez gain, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Enplegu garbia sortzeko erantzukizun-adierazpena (III. eranskina).
- Langileak Txorierrri eskualdeko Behargintza Txorierrri SL enplegu-agentziaren bidez (zenbakia: 1600000012) kontratatzeko erantzukizun-adierazpena, eta indarreko araudia eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzen delako konpromisoa (IV. eranskina).

7. Laguntza emateko prozedura

Eskaerak Derio Udalak ebatziko ditu Egaz Txorierrri proposatuta.

Eskaerak konkurrentzia askean hautatuko dira.

Eskaerei buruzko ebazpenak emateko gehieneko epea 15 egun baliodunekoa izango da, «Enpresak parte hartzeko eskaera» aurkezten den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Diru-laguntzen eskaerak gaitzetsizat joko dira epe horretarako ebazpenik eman ez bada. Edonola ere, administrazioak eskaerei buruzko berriazko ebazpenak eman beharko ditu.

Laguntza emateko, funtsak puntuazio-ordenari jarraikiz banatuko dira ondoko puntuazio-baremoaren arabera, betiere deialdi honetarako ezarritako betekizunak betetzen badituzte, harik eta aurrekontu-kreditua amaitzen den arte.

- Sei puntu, enpresa kontratatzailea edo enpresa kontratatzailearen lantokia Derion baldin badago.
- Hiru puntu, enpresa kontratatzailea edo enpresa kontratatzailearen lantokia Txorierrri eskualdeko beste udalerrietako batean badago (Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika edo Zamudio).
- Puntu bat, 35 urtetik beherakoengatik.
- Puntu bat, emakumeengatik.



Berdinketa gertatzen bada, instantzien aurkezpen-ordena kontuan hartuko da. Aurkeztutako dokumentazioa oso-osorik ez badago, aurkezte datatzat joko da osoa aurkeztutako eguna.

«Enpresak parte hartzeko eskaera» ez da onartuko deialdi honetan ezarritako bete-kizunak betetzen ez badira.

- «Enpresak parte hartzeko eskaera» gaitzetsi egingo da dagokion partidako kreditua amaitzen denean.
- Kontraturiko pertsonak diru-laguntzaren aldia bete baino lehenago amaitzen badu lan-harremana, haren ordezkioak haren baldintza berberak bete beharko ditu, lanaldiari, kontratu-motari, lanpostuari eta kategoria profesionalari dagozkionak barne.

Kreditu erabilgarria agortzen denetik aurrera aurkezten diren eskaerak edo epez kanpo hartzen direnak, erreserba zerrendan sartuko dira.

Atzera egiteagatik, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik edo beste edozein arrazoi-gatik gerakinak izanez gero, Derioko Udalak diru-laguntzak eman ahal dizkie erreserba zerrenda daudenei, beti eskaeren aurkezte ordena errespetatuz.

8. Laguntza ordaintzea

Oro har, diru-laguntza ordaintzea bakarrean emango da «Enpresak parte hartzeko eskaera» bakoitzeko, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Egiaztagiria oso-osorik eta behar bezala beteta aurkezten direnean eta eskatu diren gainerako dokumentuak aurkezten direnean, oinarri hauetan adierazi diren betebeharrei eta baldintzei jarraituz.
- Bizitokia Derion duela egiaztatutakoan.
- Derioko Udalak erabaki ahalko da ordaintzak atal honetan jasota ez dagoen beste modu batean egitea, uste badu, gertatu diren gorabeherak direla eta, sistema berriak laguntza hauen kudeaketa errazten duela.

9. Diru-laguntzaren justifikazioa

Aurretiaz oinarri hauetan adierazten diren «Enpresak parte hartzeko eskaera» eta ondorengo kontratazioa egin dituzten erakundeek, beharrezko baldintza guztiak bete badituzte eta izapiderrako onartuak izan badira, kontratazio horiek benetakoak direla frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, kontratazio hasi eta 6 hilabete igarotzen direnetik aurrera. Egiaztagiria aurkezteko azken eguna 2018ko maiatzaren 10a izango da, betiere, oinarri hauetan adierazitako baldintza guztiak betetzen badira.

a) *Lekua eta ordua*

Kontratazioen egiaztagiria bi modalitate bidez aurkeztuko dira:

- egaz@txorierrri.eu helbide elektronikoaren bidez.
- Egaz Txorierrin (helbidea: Txorierrri etorbidea 46, 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era.

Egiaztagiria ez dira behar bezala aurkeztutzat joko egon daitezkeen hutsak zuzendu arte.

b) *Aurkeztu beharreko dokumentazioa*

Erakunde interesdunek oinarri hauetako V. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz justifikatu behar dute kontratazioa. Era berean, dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

- VI. eranskina, behar bezala beteta.
- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia.
- Nominak, langileen izen-zerrenda (garai bateko TC1) eta kotizazioen likidazio-agiria (garai bateko TC2), jasotako laguntza justifikatzeko.



- Zinpeko adierazpena, adierazten duena kontrataturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (III. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantziatorik ez duela egiaztatzen duen agiria (VI. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa.
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VIII. eranskina).
- Memoria laburtua, txantilo ofizialean (IX. eranskina).
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

10. Erakunde onuradunek bete behar dutena

- a) Oinarri hauetan eskatutako baldintza guztiak betetzea.
- b) Laguntza honen kargura jasotako diru-laguntzen inguruan eta fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatzen den informazioa ematea Derioko Udalari. Derioko Udalari
- c) Oinarri hauetako kontzeptu berberengatik enpresak jaso dituen beste laguntza batzuen berri ematea Derioko Udalari. Enpresak beste laguntzaren bat jaso badu ere, bat etorri ahalko da laguntza honekin, baina jasotako beste edozein diru-laguntzak ordaindu ez dituen gastuetarako soilik emango da diru-laguntza.
- d) Unean-unean jakinaraztea adostutako baldintzak aldatu direla edo kontratatu ondoren arazoren bat dagoela jakinarazi Derioko Udalari.
- e) Derioko Udalaren Tokiko Enplegua Sustatzeko 2017ko Programaren kudeaketa-agindua dela-eta, hasieran nahiz ondoren eska diezazkioketen betebeharrak guztiak betetzen laguntzea.
- f) Langileak Txorierri eskualdeko Behargintza Txorierri SL enplegu-agentziaren bidez kontratatzea (zenbakia: 1600000012), eta indarreko araudia eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzeko konpromisoa hartzea (IV. eranskina).
- g) Horrez gain, Egaz Txorierri egokitzen dituen behar beste ikuskatze egingo ditu diruz lagundutako proiektuaren gainean.

11. Baldintzak ez betetzea eta laguntza itzultzea

Laguntza emateko baldintzetako bat betetzen ez bada, onuradunek betebeharren bat betetzen ez badute, edo emandako datuak edo aurkezturiko erantzukizun-adierazpenak faltsutzen badira, laguntza-programatik bazter utziko dira, eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute.

Diru-laguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak ez badu diru-laguntzaren bat justifikatu justifikazio-aldia amaitzerako. Halaber, ez da diru-laguntza ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak ez badu diru-laguntzaren bat itzuli hala eskatu zaionean.

Derioko Udalak honakoa ebatziko du: baldintzaren bat ez dela bete, enpresa bazter utzi dela, diru-laguntza itzuli behar duela eta laguntzak jasotzeko eskubidea galdu duela. Ebazpena eman aurretik, zerbitzu teknikoek horren inguruko txostena emango dute.

**12. Programaren indarraldia eta garapena**

Oinarri hauek aplikatuko zaizkie Txorierri.eu webgunean argitaratzen direnetik 2017ko abenduaren 1era bitartean aurkezten diren «Enpresak parte hartzeko eskaera» guztiei, eta diru hori oinarri hauek Txorierri.eu webgunean argitaratzen direnetik 2017ko abenduaren 1era arte abiatzen diren kontratazioak ordaintzeko erabili ahal izango dira.

13. Datu pertsonalak babestea

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Behargintza Txorierri SLk jakinarazten du oinarri hauek izapidetzean sortzen den dokumentazioan adierazten diren datu pertsonalak Behargintza Txorierri SLren titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla, kontrataziorako laguntzen deialdi hau kudeatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak horren berri izan du, eta ados dago bai bere datuak aipatutako helbururako erabiltzearekin bai aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza-erakundeei lagatzearekin, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekotza egiteko eta lan-merkatuaren azterketak eta analisiak gauzatzeko.

14. Emandako diru-laguntzak argitaratzea

Egaz Txorierriko emandako diru-laguntzak argitaratuko dira Derioko Udalaren webgunean (www.deriokoudala.net) eta Egaz Txorierri webgunean (txorierri.eu).

15. Araubide juridikoa

Derioko Udalak, diru-laguntzen erakunde emaile gisa, ahalmena du deialdi honen oinarriak interpretatzeko eta zuzen ezartzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.



I. ERANSKINA

ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO
PROGRAMARAKO «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERA»

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:
.....; udalerria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa
(adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

I. Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kontratatze laguntzen proiektuak arautzen dituzten oinarri berrietako edukiaren berri izan du.

II. Ordezkatzen duen erakundeak oinarriek eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu, eta horietan adierazitako betebeharrak guztiak beren-beregi onartzen ditu.

III Oinarri horiekin bat egiteko eskaera egiten du, honako ezaugarri hauek dituen kontratazioa diruz laguntzeko:

- Lanpostua ⁽¹⁾:
- Kontratu-mota:
- Hasiera-data:
- Kontratuaren iraupena:
- Jardueraren sektorea:

⁽¹⁾ Adierazitako lanpostuak bat etorri behar du lan-kontratuan adierazitako lanpostuarekin.

«Enpresak parte hartzeko eskaera» honekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da, I. eranskina:

- Enpresaren IFKren kopia.
- Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria.
- Derioko Udalaren Tokiko Enplegua Sustatzeko 2017ko Programan parte hartzeko deialdian aurkeztutako kontratazioekin enplegu garbia sortzeko eskakizunak beteiko direla dioen erantzukizun-adierazpena (III. eranskina).
- Langileak Txorierrri eskualdeko Behargintza Txorierrri SL enplegu-agentziaren bidez (zenbakia: 1600000012) kontratatze konpromisoaren erantzukizun-adierazpena, eta indarreko araudia eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzen delako konpromisoa (IV. eranskina).

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



II. ERANSKINA

AHAIDETASUNARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMAREN
DEIALDIAN AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOETAN AHAIDETASUNIK EZ EGOTEAREN
ESKAKIZUNAK BETETZEN DIRELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENEA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:
.....; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa
(adierazi ordezkari-tza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioaren xede den pertsona ez da sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea, oinordekoa edo ahaidea, eta ez da, halaber, adierazitako beste pertsona horietako inor.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua

**III. ERANSKINA****ENPLEGU GARBIA SORTZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA**

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» AURKEZTUTAKO KONTRATAZIOEKIN ENPLEGU GARBIA SORTZEKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DIRELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa (adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

Oinarrietan araututako laguntzak eskatzen dituen kontratazioak enplegu garbia sortuko du diruz laguntzen diren kontratuak izango dituzten pertsonak sartu aurreko 3 hila-beteetan enpresan egon den batez besteko plantilla osoaren gainean.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



IV. ERANSKINA

**KONTRATATZEKO KONPROMISOARI BURUZKO
ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA**

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» ADIERAZITAKO KONTRATATZEKO
KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:
.....; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa
(adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

Oinarri hauetan eskatutako baldintzei jarraikiz egingo du kontratazioa, eta langileak Txorierri eskualdeko Behargintza Txorierri SL enplegu-agentziaren bidez (zenbakia: 1600000012) kontratatuko ditu. Halaber, indarreko araudia eta laneko arriskuen prebenzioaren araudia betetzeko konpromisoa hartuko du.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



V. ERANSKINA

**BESTELAKO FINANTZAZIORIK EZ DAGOELA DIOEN
ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENAREN EREDUA**

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» ADIERAZITAKOAZ BESTELAKO FINANTZAZIORIK
EZ DAGOELA DIOEN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:
.....; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa
(adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN

«Enpresak parte hartzeko eskaeran» adierazitako kontratazioari dagokionez, ez dago
eta ez da egongo bestelako finantziatorik edozein arrazoi dela eta. Bestalde, adieraz-
pen honen xede diren alderdiekin lotutako edozein gorabehera beren-beregi eta idatziz
adierazteko konpromisoa hartzen du.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VI. ERANSKINA

EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEKO EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERARI» DAGOZKION EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:), bere izenean edo
..... enpresaren (IFK:; egoitza soziala:; PK:
.....; udalerrria:; telefono-zenbakia:) ordezkari gisa
(adierazi ordezkaritza-ahalmenak),

Honako agiri hauek ere aurkeztu dira:

- Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia.
- Diruz lagunduko den kontratuaren kopia.
- Nominak, langileen izen-zerrenda (garai bateko TC1) eta kotizazioen likidazio-agi-
ria (garai bateko TC2), jasotako laguntza justifikatzeko.
- Zinpeko deklarazioa, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresa-
riarekin edo enpresaren kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo
administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren
mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (III. eranskina).
- Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantziatorik ez duela egiaz-
tatzen duen agiria (VI. eranskina).
- Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela
egiaztatzen duten agiriak.
- Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetan egon den plantillaren batezbestekoaren
egiaztagiria, GSDOk emandakoa.
- Kontratazioaren egunean bertan egon den batez besteko plantillaren egiaztagiria,
GSDOk emandakoa.
- Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren
fitxa (VIII. eranskina).
- Memoria, txantilo ofizialaren arabera egina.
- Eskatzen zaion beste edozein agiri.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VII. ERANSKINA

HIRUGARRENEN ALTAREN FITXAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO «ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAN» ADIERAZITAKO BANKU-KONTUAREN ZENBAKIAREN TITULARTASUNA EGIAZTATZEN DUEN HIRUGARRENEN ALTAREN FITXA

Hartzekodunaren agiria
Ficha Acreedor

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora
Izena eta abizura bi edo Sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social
Helbidea / Domicilio
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
NAN - IFK / DNI - CIF
Telefonoa / Teléfono
Faxa / Fax:
e-mail
n, 20 e)ko k
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura / Firma de la parte acreedora o apoderada

Banka helbideratzeak / Domiciliaciones bancarias
1 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularrak goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrera e do itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodea / Código IBAN
E S
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
n, 20 e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria
2 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularrak goian adierazitakoa dela.
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuya persona titular es la arriba indicada.
Zergaren sarrera e do itzulketa helbideratu nahi duzun finantza erakundea: /
Entidad financiera en la que desea domiciliar el ingreso o devolución del impuesto:
IBAN kodea / Código IBAN
E S
Herria / Población
Prointzia / Provincia
PK / CP
n, 20 e)ko k
Sinadura eta banketxearen zigilua / Firma y sello de la entidad bancaria

Agiri hau alta edo aldarazpenik dagoenetan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
NANren edo IFKAREN fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
Bi kontu baino gehiago duen hartzekodunak izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas añadir otro impreso.

Data personalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakineratzen dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu personalak fitxategi automatizatu baten sartuko diregula, endoren, erabili ahal izateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak akusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, horako helbide honetara jo dezakuzu.
En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley.

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua



VIII. ERANSKINA

AZKEN MEMORIAREN EREDUA

DERIOKO UDALAREN TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO 2017KO PROGRAMARAKO
«ENPRESAK PARTE HARTZEKO ESKAERAKO» AZKEN MEMORIA

Lekua, eguna, sinadura eta zigilua